



MADDI SOROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Europar Batasunaren britainiartzea

EUROPA kontinenteko zenbait herrialdek susmopean eduki dituzte britainiarrak. Ez dugu ahaztu behar Charles de Gaulle jeneralak erdi-betatu egin zuela Britainia Handia Europar Batasuna (EB) lehen urratsak ematen hasi zenean. Hala ere, 1973an kide tu zen.

Lehenengo urteak errazak izan ziren bi aldeentzat, baina Margaret Thatcher anderea lehen ministro bilakatu zenean, 1979an, hasi ziren komeriak. Izan ere, berehala planteatu zuen Britainia Handiak egiten zizkion ekarpen ekonomikoak batasuneko aurrekontuari jasotzen zuen dirutza baino askoz handiagoa zela. Ondorioz, hor dago diferentzia hori estaltzen duen urteroko txekoa, britainiar txekoa deritzona.

Monetaren batasuna eratzerakoan, britainiarrek argi zeukaten beraien subiranotasunaren ikurra, libra esterlina alegia, ezin zezaketela alboan utzi. Argi zuten moneta batuak *City*ren negozioak ahulduko zituela eta erabaki zuten eurotik kanpo

lea: publikoak beti oker funtzionatzen du eta pribatuak beti ondo. Dogma hau leku guztietan barneratu da. EBk ere pribatizatze bideari heldu dio eta ikusten ari gara zerbitzuen kalitate mailaren hondamendia.

Bestalde, jakina da EBren lehen helburuak Europako herrialdeen arteko kohesioa eta ongizatea garatzea zirela. Baina helburu horiek ez dira inoiz gogoko izan britainiarrentzat, are gutxiago Thatcher eta Tony Blairrentzat. Hauen nahia eta helburua Europa osoa, ekialdeko herrialdeak barne, merkatu libre bihurtzea izan da, gizarte kohesioa alde batera utzita.

Horretarako Amsterdameko Tratatuak bide ematen zuen. Izan ere, 1997tik aurrera bideak irekita geratu ziren, besteak beste, Errumania edo Bulgaria bezalako herrialde atzeratuak EBko kide bihurtzeko. Zalantzarik gabe, EBk diru gutxi ipini behar izan zuen herrialde atzeratu horien ekonomiak indartzeko. Beraz, diferentzia ekonomiko erraldoiak izaten jarraituko du eta enpresa multinazionalak erraztasun oro izango dute lekualdatzeko EBren barruan, lan kostuen aldeak oso nabarmenak baitira: Suedian batez besteko orduko soldata 43,80 eurokoa da eta Bulgariakoa 2,90 eurokoa. Non dago kohesioa?

Eta zer esan genezake europar kanpo politikaz edo defentsa bateratuaz? Herrialde bakoitzak bere interesen arabera funtzionatzen du eta britainiarrek interes propio bereziak dituzte.

Azkenik, diru merkatuak ukiezin bihurtu ditu Britainia Handiak. Izan ere, *City*ko diru mugimenduei Tobin Tasa ezartzerik ez dute entzun ere egin nahi. Bien bitartean, Zerga paradisu inguratuta dago herrialde britainiarra: Jersey, Man, Gibraltarr eta abar. Itxuraz paradisu hauen aurkako neurriak hartzekoak dira, baina errealtatean ezer gutxi egiten dute, paradisu horietaz baliatzen diren dirudunek ahalmen politiko handiegia baitute.

Hori bai, EBko hizkuntza komuna edo erabilienga ingelesez izatea onartu da. Horretan batu gaitu Britainia Handiak! ■



Thatcherren garaian Britainia Handiko sektore publikoa pribatizatzen hasi zen, hain zuzen mundu guztiko herrialdeetara hedatu den politika pribatizatzailea: publikoak beti oker funtzionatzen du eta pribatuak beti ondo. Dogma hau leku guztietan barneratu da. EBk ere pribatizatze bideari heldu dio eta ikusten ari gara zerbitzuen kalitate mailaren hondamendia

geratzea. Modu horretan, diru politika autonomoa gauzatzeko tresna ezin hobea-rekin geratzen ziren, Espainiako Estatuak edo beste edozein estatu kidek ez bezala, libra esterlina baliogabetu edo birbaloratu baitaiteke. Berrito ere, britainiarren ohiturarekin bat eginez, beraienarekin atera ziren, kosturik gabe gainera.

Thatcherren garaian Britainia Handiko sektore publikoa pribatizatzen hasi zen, hain zuzen mundu guztiko herrialdeetara hedatu den politika pribatizatzaile-